BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

935

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 3koa, Energia eta Meategietako zuzendariarena, Gamiz-Fika udalerriko gaur egungo «Olazar» TZ transformazio-zentrorako (200602670 zenbakia) aireko eta behe-tentsioko L2 linea elektrikoaren instalazioa baimentzen duena eta egikaritze-proiektua onartzen duena, eta hura onura publikoko deklaratzen duena.

Erref.: L-7800. ASS/TLE

Espediente-zenbakia: AT-H-2012/-37.

EGITEZKO AURREKARIAK

1.– 2012ko maiatzaren 23an, Iberdrola Distribución Electrica, S.A.U enpresak (egoitza Bilbon du, San Adrian etorbideko 48.ean) linea bat exekutatzeko proiekturako administrazio-baimena, onura publikoko deklarazioa eta onarpena eskatu zituen. Linea hori, hain zuzen ere, «Olazar» TZ transformazio-zentrorako izango da (Gamiz-Fikan dago eta 200602670 zenbakia du), eta airekoa eta behe-tentsiokoa izango da. Horretarako, eskabidea eta proiektu teknikoa aurkeztu zituen, proiektua Ion González del Hoyo industria-ingeniariak sinaturik zegoen, 2012ko maiatzaren 17ko gaitasun-deklarazioaren arabera.

2.– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuko 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica SAren aipatu eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2012-07-06n BAOn, 2012-08-29an EHAAn eta 202-07-06an El Correo egunkarian.

3.– 2012ko ekainaren 26an ofizio bat igorri zitzaion Gamiz-Fikako Udalari, aipaturiko iragarkia udaletxeko iragarki-oholean jar zezan, eta, aldi berean, instalazioaren herri-onuraren deklarazioa bidezkoa zen ala ez adierazteko txostena eta, hala bazegokion, egoki iritzako baldintza teknikoak aurkez zitzan. Txostena eta baldintza teknikoak Ur Agentziari ere eskatu zitzaizkion.

4.– Udalak esan du berak ez duela eragozpenik linea exekuta dadin, betiere proiektuaren arabera. Ur Agentziak, berriz, baldintza batzuk aurkeztu ditu. eskari-egileak baldintza horiek onartu, ditu, 2012ko urriaren 1ean aurkeztutako dokumentazioko baldintzetan, zeina agentziak berak jakinarazi baitzuen.

5.– Hartarako ezarritako erakustaldiaren barruan, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza, Basilio Egaña Mentxakak, hau da, sarea hedatzeko azpiegitura elektrikoaren sustatzailea denak alegazioak aurkeztu zituen, eta horiek onartu egin ditu eskari-egileak, halaxe baitago jasota aipatu 2012ko urriaren 1eko dokumentazioan.

OINARRI JURIDIKOAK

A) Espedienteak betetzen ditu Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, Energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, Eusko

Jaurlaritzak abenduaren 3an emandako 282/2002 Dekretuak eta bat datorren gainerako legediak agintzen dituen arauzko izapideak.

B) Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Lege horren 52. artikuluak energia elektrikoa banatzeko instalazioak onura publikokotzat aitortzen ditu, instalazio horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari eta bide-zortasuna ezarri eta gauzatzeari begira. Aitorpen horrek ondasun eta eskubideak okupatu beharra dakar berekin, eta okupazio urgentea eragiten du Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aintzat hartuta.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009-09-24ko EHAA) aitortzen zaizkion eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DU

Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.Uri baimena ematea, eta proiektua onartzea. Proiektua, hain zuzen ere, gaur egungo «Olazar» TZ transformazio-zentrorako behe-tentsioko aireko elektrizitate-linea bat exekutatzeko da (Gamiz-Fikan dago eta 200602670 zenbakia du), eta ezaugarri nagusiak hauek ditu:

● Honetan datza funtsean: egungo 1. zk.ko euskarriaren eta 4. zk.ko euskarriaren artean dagoen behe tentsioko aireko linea isolatua birpotentziatzea, 4. euskarriaren eta 5. euskarriaren (berria) artean linea-tarte berri bat jarriz 3 eroale isolaturen bitartez (eroale bat fase bakoitzeko) gehi beste bat neutrorako, RZ 0,6/1kV motakoa (3x95/54,6 mm^2), aluminiozkoa.

Baimentzen den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea, eta deklarazioak, azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 54. artikuluan xedatutakoaren indarrez, honako hauek dakartza berekin: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu behar direla eta okupazioa, gainera, presaz egin behar dela. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera eman da, eta honako baldintza orokor hauekin:

1.– Obrak proiektu horren eta 2012-10-01ean aurkeztu trazatu berraztertuaren arabera egin beharko dira. Proiektua Ion González del Hoyo industria-ingeniariak sinatuta dago, 2012ko maiatzaren 17ko deklarazioaren arabera.

2.– Martxan jartzeko epea ez da urtebetekoa baino luzeagoa izango, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Lanak amaitzean, instalazioen jabeak Bizkaiko Lurralde Bulegoari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman eta abiaraztearen agiria egite aldera.

4.– Baimen hau eman dugu udalek eta probintziek eman beharreko lizentzia eta baimenei eta obrak egiteko beharrezkoak diren gainerakoei ezer kendu gabe eta horietatik aparte, eta eskatzaileak beharrezkoak izango ditu horiek ere. Halaber, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe ematen da baimena, eta jabetza-eskubidea salbu utziz.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Beraz, aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industria eta Energiako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoaren arabera (lege horren bidez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 3a.

Energia eta Meategien zuzendaria.
JAVIER ZARRAONANDÍA ZULOAGA.